



## TXOSTEN JURIDIKOA, EUSKADIKO ZIBERSEGURTASUN AGENTZIA SORTZEKO LEGE-AURREPROIEKTUARI BURUZKOA.

Txosten hau Xedapen Orokorrek Egiteko Prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 7.3 artikuluan eta Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoaren apirilaren 25eko 144/2017 Dekretuaren 10.2 artikuluan eta Segurtasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 6/2021 Dekretuaren 11.2.d) artikuluan ezarritakoa betez egin da.

Arau-proiektuaren funtsa, haren edukia Legeari eta Zuzenbideari egokitzen zaizkion, eta araugintzako jarraibide guztiak betetzen dituen aztertuko da txosten horretan.

### I. AURREKARIAK

2022ko uztailaren 11n, Araubide Juridikoaren, Zerbitzuen eta Hauteskunde Prozesuen zuzendariak Euskadiko Zibersegurtasun Agentzia Sortzeko Lege-aurreproiektua egin aurreko kontsulta publikoaren epea irekitzeko agindu zuen. Hurrengo egunean argitaratu zen epea ireki zela, Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoko iragarki-oholean, eta 2022ko abuztuaren 2ra arte egon zen zabalik, herritarrek egoki iritzitako alegazioak edo iradokizunak egin ahal izan zituzten. Epe horretan ez zen horri buruzko alegaziorik edo iruzkinik egin.

2022ko abuztuaren 3an honako jarduketak hauek egin ziren:

- Lehen lehendakariorde eta Segurtasuneko sailburuak agindu zuen has zedila Euskadiko Zibersegurtasun Agentzia Sortzeko Lege-aurreproiektua egiteko prozedura, hura izapidetu eta Gobernu Kontseiluari aurkezteko.
- Segurtasuneko sailburuordeak aurreproiektuaren justifikazio-memoria eta memoria ekonomikoa erantsi zizkion espediente elektronikoari.
- Saileko aholkularitza juridikoak aurreproiektuaren testua erantsi zion espediente elektronikoari, bi bertsioetan, gaztelaniaz eta euskaraz.
- Araubide Juridikoaren, Zerbitzuen eta Hauteskunde Prozesuen zuzendariak aurreproiektuak genero-ikuspegitik garrantzirik ez zuela justifikatzen zuen txostena erantsi zion espediente elektronikoari, eta egun horretan bertan Emakundera bidali zuen, aipatutako 4/2005 Legearen 19.6 artikuluan aurreikusitako txostena egiteko, artikulua hori behar bezala aplikatu zela egiaztatzearen eta, beharrezkoa bazen, hobetzeko proposamenak egitearren.

2022ko abuztuaren 4an, honako jarduketa hauek egin ziren:

- Lehen lehendakariorde eta Segurtasuneko sailburuak aurreproiektuari aldez aurreko onarpena emateko agindua eman zuen.
- Aurreproiektua Eusko Legebiltzarrera bidali zen, Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 56. artikulua 1. apartatuan ezarritakoari jarraikiz (ekainaren 2ko 8/2016 Legeak sartutako aldaketaren ondoren).
- Aldez aurreko onarpenaren agindua, eta, horrekin batera, lege-proiektua, Legesarea lankidetzarako eremuan eman zen argitara, bai eta Legegunean ere.
- Araubide Juridikoaren, Zerbitzuen eta Hauteskunde Prozesuen zuzendariak lege-aurreproiektua jendaurrean jartzeko agindu zuen, baina txosten hau egin den egunean agindu hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeke dago.

2022ko abuztuaren 10ean, honako jarduketa hauek egin ziren:

- Aurreproiektuaren berri eman zitzaion Jaurlaritzako sailei, hiru lurralde historikoetako foru-aldundiei eta Euskadiko Udalen Elkarteari (EUDEL), parte hartu eta kontsultatu zezaten.
- Honako erakunde hauen txostena eskatu zen:
  - Datuak Babesteko Euskal Bulegoa.
  - Aurrekontu Zuzendaritza.
  - Funtzio Publikoko Zuzendaritza
  - Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritza.
  - Herritarrak Hartzeko eta Zerbitzu Digitaletako Zuzendaritza.
  - Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien Zuzendaritza.
  - Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordearen Batzorde Iraunkorra.

## II. AURRETIAZKO GOGOETAK

Euskadiko Zibersegurtasun Agentzia sortzeko lege-aurreproiektuari dagokionez, honako gogoeta hau egin behar da haren edukia aztertu eta legera eta zuzenbidera egokitzen den ikusi aurretik.

Egiaztatu denez, Euskadiko Zibersegurtasun Agentzia sortzeko lege-aurreproiektua ez dago jasota lehen lehendakariorde eta Segurtasuneko sailburuaren 2022ko urtarrilaren

25eko Aginduan, Segurtasun Sailaren 2022ko Urteko Araugintza Plana onartzekoan. Ondorioz, Eusko Jaurlaritzaren 2022rako Urteko Araugintza Planean ere ez da jaso – Gobernu Kontseiluak 2022ko martxoaren 15ean egindako bilkuran erabaki zuen plangintza argitaratzea–.

Horri dagokionez, Gobernu Kontseiluak, 2017ko abenduaren 12an, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedura aplikatzeari buruzko jarraibideak onartzeko Erabakia hartu zuen. Erabaki horretan jasotzen den definizioaren arabera, Urteko Araugintza Plana «*publizitate aktiboko izapide bat da uneko urteko arauak onartzeko aurreikuspenei dagokienez; dagokion erabakia hartu ostean amaituko da izapide hori. Horrez gain, urte bakoitzeko lehenengo hilabeteetako data zehatz batean autonomia-erkidegoko administrazio orokorreko sailek aztertuko dituzten araugintza-ekimenen berariazko adierazpidea dela ere ulertuko da. Zabalkunde publiko horrek gardentasun-printzipioaren eskakizunei erantzuten die, eta, beraz, aurretiaz uneko planean jaso gabe hasi behar diren prozedurek egoera hori justifikatu beharko dute dagozkien memorietan*».

Hori dela eta, ohartarazten da Segurtasun Sailak Jaurlaritzari helarazten dion 2023rako arau-plangintzan sartu beharko dela aurreproiektua, hark onar dezan, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 8. artikuluan ezarritakoari jarraituz. Zehazki, honako hau jasotzen du:

8. artikulua. – Arau-plangintza.

1.– Gobernuak urtero onartuko du araugintza-plan bat, eta bertan bilduko dira urte horretan Gobernu Kontseilura, hark onar ditzan, igorriko diren legegintza- edo erregelamendu-ekimenak.

2.– Eusko Jaurlaritzaren urteko araugintza-plana urte bakoitzeko lehen hiruhilekoan argitaratuko da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoan eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, beharrezkoak diren informazioa eta parte-hartzea bermatze aldera.

3.– Urteko araugintza-planean azalduko da, ezarritako irizpideen arabera, zein arauk behar duten haien aplikazioaren emaitzei buruzko ebaluazioa, batez ere erreparatuz Administrazioari edo hartzaileei dakarkieten kostuan eta azken horiei ezarritako administrazio-zametan.

4.– Xedapen orokorrak egiteko prozedura abiarazi behar bada, eta dena delako urteko araugintza-planean aldeztu aurretik sartu gabe dagoen xedapen bat bada, inguruabar hori justifikatu egin beharko da dagozkien memorietan, baina ez da, hargatik, baliogabetuko.

5.– Administrazio Orokorreko sailek, urteko araugintza-plan berri bat onartu aurretik, bakoitzak bere araugintza-plangintzaren gauzatze-memoria bat landu eta jakinaraziko dio Gobernuari.

### III. ARAU-ESPARRUA

Zibersegurtasunaren arloko egungo arau-esparrua, aplikazio-eremua kontuan hartuta, honako arau hauetan dago jasota:

a) European:

- 2016/1148 (EB) Zuzentaraua, uztailaren 6koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, Europar Batasuneko informazio-sare eta -sistemen segurtasun-maila handia eta bateratua bermatzeko neurriei buruzkoa (NIS Zuzentaraua). Zuzentaru horretan, segurtasun-betebeharrak ezartzen zaizkie funtsezko zerbitzuen operadoreei (ezinbesteko sektoreetakoei, hau da, energia, garraio, osasun eta finantzetakoei) eta zerbitzu digitalen hornitzaileei (online merkatuak, bilaketa-motorrak eta hodeiko zerbitzuak).

2020ko abenduan, Europako Batzordeak NIS Zuzentaraua berrikustea proposatu zuen (NIS 2), 2016ko Zuzentaraua ordezkatzeko. Proposamen berriak mehatxuen bilakaerari erantzuten dio eta eraldaketa digitala, COVID-19aren krisiak azkartua, kontuan hartzen du. Kontseiluak eta Europako Parlamentuak EB osoan zibersegurtasun-maila bateratu handia bermatzeko neurri berriei buruzko behin-behineko akordio bat lortu zuten 2022ko maiatzean, gorabeheren aurrean erresilientzia eta erantzuteko ahalmenak hobetzen jarraitzeko, bai sektore publiko eta pribatuarenak, bai EB osoarenak. Onartu ondoren, NIS 2 izeneko zuzentaru berriak informazio-sare eta -sistemen segurtasunari buruzko egungo zuzentaraua ordezkatu du.

- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2019/881 (EB) Erregelamendua, 2019ko apirilaren 17koa, ENISari (Zibersegurtasunerako Europar Batasunaren Agentzia) eta informazioaren eta komunikazioaren teknologien zibersegurtasunaren ziurtagiriari buruzkoa, eta 526/2013 (EB) Erregelamendua («Zibersegurtasunari buruzko Erregelamendua») indargabetzen duena. Zibersegurtasunerako EBko agentzia berria bere aurrekoaren egituretan oinarritzen da, hau da, Sareen eta Informazioaren Segurtasuneko Europar Batasuneko Agentziaren egituretan, baina bere eginkizuna indartu egin da eta mandatu iraunkorra du. Estatu kideei, Europar Batasuneko erakundeei eta beste alderdi interesdun batzuei zibererasoei aurre egiten laguntzea da bere eginkizuna.

b) Estatuan:

- 8/2011 Legea, apirilaren 28koa, Azpiegitura kritikoak babesteko neurriak ezartzen dituena.
- 704/2011 Errege Dekretua, maiatzaren 20koa, Azpiegitura Kritikoak Babesteko Araudia onartzen duena.
- 4/2015 Lege Organikoa, martxoaren 30ekoa, Herritarren segurtasuna babesteari buruzkoa.

- 7/2015 Legea, uztailaren 9koa, Babes zibileko sistema nazionalarena. Lege horren 1. artikuluan honako hau adierazten da: «*Babes zibila, segurtasun publikoaren politikarako tresna den aldetik, pertsonak eta ondasunak babesten dituen zerbitzu publiko bat da, naturaren edo giza ekintza halaberrezko zein asmo txarrekoen ondoriozko larrialdi eta hondamendi mota guztiei behar bezalako erantzuna ematea bermatzen duena*». Gainera, administrazio publiko guztien babes zibileko jarduerak biltzen ditu, bere eskumenen esparruan, erantzun koordinatua eta eraginkorra ematen dela bermatzeko.
- 407/1992 Errege Dekretua, apirilaren 24koa, Babes zibileko oinarritzko araua onartzen duena.
- 2020ko abenduaren 16ko Ebazpena, Idazkariordetzarena, Ministro Kontseiluaren 2020ko abenduaren 15eko Erabakia argitaratzen duena, zeinaren bidez Babes Zibileko Larrialdietarako Estatuko Plan Orokorra onartzen baita.
- 36/2015 Legea, irailaren 28koa, Segurtasun Nazionalarena.
- Presidentetza eta Lurralde Administrazioetako Ministerioaren (PLA) 33/2018 Agindua, urtarrilaren 22koa, Zibersegurtasuneko Kontseilu Nazionala arautzen duen Segurtasun Nazionalako Kontseiluaren Erabakia argitaratzen duena.
- 12/2018 Errege Lege Dekretua, irailaren 7koa, Informazio-sare eta -sistemen segurtasunari buruzkoa, urtarrilaren 26ko 43/2021 Errege Dekretuak garatua.
- 14/2019 Errege Lege Dekretua, urriaren 31koa, zeinaren bidez presako neurriak hartzen baitira segurtasun publikoko arrazoiengatik administrazio digitalaren, sektore publikoko kontratazioaren eta telekomunikazioen arloan.
- Presidentetzako, Gorteekiko Harremanetako eta Berdintasuneko Ministerioaren (PGB) 487/2019 Agindua, apirilaren 26koa, Segurtasun Nazionalerako Kontseiluak 2019ko apirilaren 12an onetsitako Zibersegurtasunaren 2019ko Estrategia Nazionala argitaratzen duena.
- 1150/2021 Errege Dekretua, abenduaren 28koa, Segurtasun Nazionalako 2021eko Estrategia onartzen duena.

- 311/2022 Errege Dekretua, maiatzaren 3koa, zeinaren bidez onartzen baita Espainiako Segurtasun Eskema.

c) Autonomia-erkidegoan

- 15/2012 Legea, ekainaren 28koa, Euskadiko Segurtasun Publikoaren Sistema antolatzekoa.
- 1/2017 Legegintzako Dekretua, apirilaren 27koa, Larrialdien kudeaketari buruzko Legearen testu bategina onesten duena.
- 153/1997 Dekretua, ekainaren 24koa, «Larrialdiei aurregiteko Bidea-LABI» deritzan Euskadiko Herri Babeseko Plana onartzen duena eta larrialdiei aurre egiteko euskal sistemak dituen integrazio-bideak arautzen dituena.
- 24/1998 Dekretua, otsailaren 17koa, Euskal Herriko Herri Babeseko Batzordearen osaketa, egitekoak eta antolamendua arautzen dituena, Herrizaingo Sailari atxikitako organo aholkulari, erabakitzaile, koordinatzaile eta homologatzaile gisa.
- Euskadiko Segurtasun Publikoko Plan Orokorra 2020-2025, Gobernu Kontseiluaren 2020ko abenduaren 15eko Erabakiaren bidez onartua, zeinaren 2.5 apartatuaren arabera zibersegurtasuna Euskal Autonomia Erkidegoko (aurrerantzean, EAE) segurtasunari bereziki eragiten dioten arrisku eta mehatxuetako bat baita.
- BCSC, Basque Cyber Security Centre-ren akronimoa, Eusko Jaurlaritzak 2017an abian jarria, gure industriaren lehiakortasun- eta berrikuntza-gaitasuna estutasunean jartzen duen eta gure herritarren eskubideak mehatxatzen dituen testuinguru berria modu arduratsuan gobernatzen laguntzeko konpromiso gisa. Zentroak Euskal Autonomia Erkidegoko zibersegurtasunaren heldutasuna eta horren inguruko kontzientziazio-maila handitzeko ekimenak gidatzen eta babesten ditu, zibersegurtasunaren arloko gorabeherak prebenitzeko eta horiei erantzuteko proiektuen bidez (CERT, Computer Emergency Response Team), bai eta zibersegurtasuna sustatzeko ekimenen bidez ere, enpresa-sektorearekin lankidetzan.

Eusko Jaurlaritzako sail eta teknologia-zentro hauek osatzen dute:

- Eusko Jaurlaritzako sailak honako hauek dira: Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila. Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saila eta Hezkuntza Saila.

- Teknologia-zentroak honako hauek dira: Basque Center for Applied Mathematics, Ikerlan, Tecnalia eta Vicomtech.
- 15/2017 Legea, uztailaren 25ekoa, Kataluniako Zibersegurtasun Agentziarena, Kataluniako Generalitatearen eta haren gobernuaren babesa, prebentzioa eta gobernantza bermatzeaz arduratzen den erakundearena.

#### **IV. AURREPROIEKTUAREN XEDEA**

Aztergai dugun aurreproiektuaren xedea, lehen artikuluan xedatzen denaren arabera, Euskadiko Zibersegurtasun Agentzia-Agencia Vasca de Ciberseguridad-Basque Cybersecurity Agency (aurrerantzean, Agentzia) sortzea da. Eusko Jaurlaritzaren zuzenbide pribatuko erakunde publikoa izango da, nortasun juridiko propioa duena eta bere jardura ordenamendu juridiko pribatura egokitzen duena. Bere helburuak lortzeko jardute-gaitasun osoa izango du, autonomia organiko eta funtzionala, eta segurtasunaren arloko sail eskudunari atxikita egongo da.

Zuzenbide pribatuko erakunde publikoen figura Euskal Sektore Publikoaren maiatzaren 12ko 3/2022 Legearen 8.1 b) artikuluan jasota dago; horren arabera, administrazio instituzionalaren parte den heinean, ahalmen publikoak egikaritzeko ahalmena duen erakunde instituzionala da.

Zuzenbide pribatuko erakunde publikoak sortzeko arauketa eta aplikatu beharreko araubidea Euskal Sektore Publikoaren Legearen 39. artikuluan jasotzen dira. Artikulu horrek sistematizatu eta eguneratu egiten du aurreko araudia, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuan jasoa. Euskal Sektore Publikoaren Legeak ez ditu aldatzen aurreko araudian jasotzen ziren zuzenbide pribatuko erakunde publikoen kontzeptua eta mugaketa; aitzitik, erakundea sortzeko legean jaso beharreko gutxieneko edukia zehazten du.

Euskal Sektore Publikoaren Legearen 44.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, zuzenbide pribatuko entitate publiko bat sortzeko legeak eduki hau bildu beharko du: pertsonifikazioa, izaera juridikoa eta Administrazio orokorreko zein saili atxikitzen zaion; izena eta egoitza; zer xede edo interes orokorrerako sortzen den, eta bere eginkizun eta ahalak; bere gobernu-organok; egitura organiko eta administratiboaren oinarriak; zer araubide juridiko zehatz aplikatu behar zaion; zer langile eta ondare atxikitzen zaizkion entitateari, eta zer baliabide ekonomiko dituen; eta, entitatea azkentzeko eta likidatzeko prozedura. Horiek guztiak aurreproiektuan jasotako elementuak dira.

Bestalde, Segurtasuneko sailburuordeak espedienteari erantsitako azalpen-memorian adierazten denez, organo berri hori sortzearen azken arrazoiak da Euskal Autonomia Erkidegoan zibersegurtasunaren eremuan jarduerak egiten dituzten hainbat erakunde izanik eta sektorea bera heterogeneoa eta deszentralizatu izanik, zibersegurtasunaren arloko estrategian, gobernuan eta kudeaketa komunean hutsune bat antzeman dela, eta, teknologia berrien eta digitalizazioaren sektorean izandako aurrerapen handia aintzat hartuta, hutsune hori betetzea komeni dela.

Horrenbestez, beharrezkotzat jotzen da hutsune hori ekimen komun baten bidez betetzea, lehendik dauden baliabideak, gaitasunak eta ekimenak koordinatzeko, ingurune globalak eskatzen duen bezala zibersegurtasunaren heldutasun-maila handitzeko eta Euskadik bere zerbitzuen babesean, eskaintzan eta informazioaren erabileran erresilientzia handiagoa izateko. Hori guztia, euskal sektore publikoaren, herritarren eta enpresen sarearen babes-maila handitzeko eta optimizatzeko.

Agentzia sortzea, gainera, bat dator zibersegurtasuneko estrategia nazionalarekin, zeinak zentro autonomikoak garatzea sustatzen baitu, Euskadiko informazio-sareen eta -sistemen segurtasun-maila bermatzeko, bai eta herritarrek eta enpresek Administrazioarekiko eta haien artean duten konfiantza digitala bermatzeko ere.

Horretarako, garrantzi handia du Euskadirentzat zibersegurtasuneko organo komun bat bultzatzeak, Erkidegoan estrategia bateratu bat harmonizatu eta gobernatuko duena.

## **V. PROIEKTUAREN EDUKIARI BURUZKO OHARRAK**

### **a) Eskumena**

EAEk, Autonomia Estatutuaren 10.2 artikulua arabera (aurrerantzean, EAEAE), bere autogobernu-erakundeen antolamendu, araubide eta funtzionamendurako eskumen eskusiboa du.

Baliatzen ari garen eskumen honen lege-esparrua, beraz, aipatutako EAEAEren 10.2 artikuluan oinarritzen da, zeinak EAERI bere burua antolatzeko behar besteko ahala ematen dion Administrazio Autonomikoa eratzen duten organo, unitate administratibo edo erakundeak sortzeko, aldatzeko edota kentzeko (50/1999 KAE, 3. OJ), betiere begiratzuz Konstituzioko 149.1.18 artikuluko administrazio publikoen antolaketa eta funtzionamendurako araubide juridikoko estatuko oinarriak, Sektore Publikoko Araubide Juridikoaren Legearen (40/2015, urriaren 1ekoa) 5. artikuluan zehaztuak.

Ahalmen instrumentala da, Autonomia Erkidegoak bereganatutako eskumen substantiboak ahalik eta ondoen eta egokien erabil ditzan; beraz, administrazio publikoei eta haiek osatzen dituzten organoen titularrei aitortu behar zaie zerbitzuak ahalik eta eraginkorren izateko egokien deritzoten moduan antolatzeko ahalmena.



Botere publikoek beren burua antolatzeko duten ahalari dagokionez, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak (aurrerantzean, EABJ), 132/2021 Irizpenean, Aukerak-Gizarteratzeko Euskal Agentzia sortzeko lege-aurreproiektuari buruzkoan (egungo 3/2021 Legea, irailaren 30ekoa), honela dio:

113. Botere publikoek beren burua antolatzeko duten ahala antolamendu politiko orren funtsezko printzipioa da; izan ere, haletako bakoitzari dagokio antolaketa- eta pertsonifikazio-modu zehatzak zehaztu eta hautatzea, horien bidez interes orokorrak ahalik eta hobekien eta modurik eraginkorrenean lortzen saiatzeko, interes horiek betetzeko ardura baitu.

114. Antolamendu-aukera horiek, sortzen direnean, arauak horretarako aurreikusten dituzten prozeduretara egokitu behar dute, eta, antolatzeko modu zehatzari eta, hala badagokio, pertsonifikazioari dagokionez, ordenamenduak aurreikusten dituenen artean aukeratu behar da, dagokion organoa edo erakundea sortzearekin lortu nahi den helburua kontuan hartuta.

EABJren 024/2003 Irizpenak ere adierazi zuenez –titulartasun publikoko datu pertsonalen fitxategiak arautu eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzen duen lege-aurreproiektuari buruzkoa zen (gaur egun, otsailaren 25eko 2/2004 Legea)–, *aipatutako artikulua* Autonomia Erkidegoari bere burua antolatzeko eta Erkidegoko Administrazioa osatzen duten organoak, unitate administratiboak edo entitateak sortu, aldatu edo ezabatzeke ematen dizkion ahalen adierazle da proiektaturiko araua. Beraz, izaera instrumental nabarmena duen atribuzio bat da, Autonomia Erkidegoaren botereen erabilerraren eta EAEAEk bere gain hartutako eskumen materialen zerbitzura dagoena, eta, horregatik, inplizitua da Espainiako Konstituzioaren 2. artikulua aitortutako autonomia-kontzeptuan bertan (50/1999 KAE, 3. OJ). Horrela, ahal hori erabiltzea legitimatuta geratzen da.

Konstituzio Auzitegiaren abenduaren 20ko 142/2018 Epaian jasota dago gai horri buruzko doktrina konstituzionala (6.d OJ):

«Autonomia Erkidegoak "bere burua antolatzeko ahala" izateak (204/1992 KAE, azaroaren 26koa, 5. OJ) dagokion administrazio autonomikoa osatzen duten edo haren mende dauden organoak, administrazio-unitateak edo erakundeak sortzeko, aldatzeko eta ezabatzeke ahala duela esan nahi du (50/1999 KAE, apirilaren 6koa, 3. OJ, eta han aipatzen direnak), gure doktrinak bere autogobernua arautzeko eskumen autonomiko gisa identifikatua, hau da, bere eskumenen gauzatzea nola antolatu erabakitzeke eskumen gisa. Ondorioz, Autonomia Erkidegoak "askatasunez eratu dezake bere administrazio-aparatuaren egitura organikoa" (165/1986 KAE, abenduaren 18koa, 6. OJ), egoki irizitako sailak edo unitateak sortuz esleitu zaizkion eskumenak behar bezala baliatzeko, betiere horrek Estatuaren berezko eskumenak oztopatzen ez baditu. Horrela, bada, bere burua antolatzeko eskumena bezain eztabaidaezina da eskumen hori Autonomia Erkidegoari berari materialki dagozkion esparruetan bakarrik erabili ahal izango dela, «ezin baita ulertu, Zuzenbidean, estatutuko eskumen batzuekin edo besteekin lotu ezin diren funtzioak dituzten organo, zerbitzu edo agentzia autonomikoak izatea» (52/2017 KAE, 5. OJ).

Jakina denez, antolaketa-ahalmenean, jurisprudenzia-doktrina etengabearen arabera (denen adierazgarri, Auzitegi Gorenaren 1998ko urtarrilaren 16ko epaia, 301. BE, eta 1997ko urtarrilaren 28ko epaia, 534. BE), diskrezionalitate teknikoak indar handia du, eta horren arabera, eginkizunak betetzeko antolamendu-aukerarik onena egitea da asmoa, Konstituzioaren 103.1 artikuluan adierazitako printzipioei jarraituz.

Administrazio Publikoaren arloan, antolatzeko ahalak diskrezionalitate-maila handia du, organo jakin batek esleitu zaizkion eginkizunak modu eraginkorrean bete ahal izan ditzan bere eginkizun-arloak ahalik eta ondoen antolatu eta banatu ditzan; nolana ere, erabaki horrek bateragarria izan beharko du Konstituzioaren 103.1 artikuluan ezarritako eraginkortasun-, deszentralizazio-, deskontzentrazio- eta koordinazio-printzipioekin.

Azaldutakoa alde batera utzita, EAEko Administrazio Orokorren eremuan eskumen horren erabilera mugatuta dago antolaketaren eta formaren arloetan, Euskal Sektore Publikoaren Legearen 39. eta 44. artikuluetan zuzenbide pribatuko erakunde publikoak sortzeari dagokionez jasotako eskakizunarengatik –aurretik ere aipatu dugu–.

Bere burua antolatzeko ahalaren erabileran diskrezionalitate-maila handia du, baina horrek ez du esan nahi arrazoitzeko beharrik ez dagoenik, araua izapidetzean antolaketa-eredu jakin bat definitzeko arrazoen eta zergatien berri emateko.

Aurreproiektua azaltzen duen memoriak, Segurtasuneko sailburuordeak aurkeztuak, behar bezala justifikatzen du (28-30. or.) Agentzia sortzeko aukeratutako izaera juridikoaren egokitasuna, eta ekimena formulatzen den moduan babesten duten beharrezko argudioak ematen ditu.

Bestalde, gogoan izan behar da aurreproiektuaren azalpen-zatian EAEk eskusiboki bere gain hartzen dituen eskumenei egiten zaien aipamena, honako artikulua hauetan ezarritakoaren arabera:

- EAEAEren 10.25 artikulua: Euskal Herriko ekonomiaren sustapena, garapena eta plangintza, ekonomiaren antolamendu orokorrarekin bat.
- EAEAEren 10.30 artikulua: Industria, salbu eta arau berezien peko industriak ezartzea, handitzea eta lekualdatzea, dela segurtasunagatik, armadaren eta osasunaren interesagatik edota eginkizunotarako legeria berezia behar dutenak eta atzerriko teknologia eskuratzeko aurretiazko kontratuak behar dituztenak. Industria-sektoreen berregituraketan, Euskal Herriari dagokio Estatuak erabakitako planak garatu eta gauzatzea.

Gure ustez, artikulua horietan jasotzen den eskumen-esparruen aipamenak ez du zerikusirik aurreproiektuaren 2. artikuluan aipatzen diren Euskadiko Zibersegurtasun Agentziaren xedearekin eta eginkizunekin; aldiz, autonomia-erkidegoaren eskumeneoak diren informazio-sistemen eta sare elektronikoen babesa aipatu beharko

litzateke, hau da, lehendakariaren 18/2020 Dekretuak jasotako funtzioa –18/2020 Dekretua, irailaren 6koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren jardun-arloak sortu, ezabatu eta aldatzeari buruzkoa–.

Zehazki, 5.1 g) artikuluan Segurtasun Sailari esleitzen dizkion segurtasun-arloko transmisio- eta komunikazio-eginkizunak, eta 7.1 artikuluko f) eta p) letretan Gobernantza eta Autogobernu Sailari esleitutako administrazio digitaleko eta gobernu elektronikoko eginkizunak, bai eta informazio-sistemetako eta telekomunikazio korporatiboetako eginkizunak ere.

Era berean, aurreproiektuaren azalpen-zatian, EAEAEren 17.1 artikuluan esleitutako eskumena aipatzen da: «...*Euskal Herriko erakundeei egokituko zaie, Estatutu honetan zehazten den eran, gizakien eta ondasunen babeserako Autonomia Erkidegoko poliziaren araubidea...*».

Eskumen-titulu horiek erabiltzen dira aztergai dugun gaia eskumen autonomikoen artean kokatzeko; izan ere, ikusten denez, kasu honetan ez dago zibersegurtasunarekin berriaz lotutako eskumen-titulu autonomikorik, Agentziari esleitutako eginkizunen oinarri denik.

Telekomunikazioen Nazioarteko Batasunaren ITU-T X.1205 Gomendioan jasotako definizioaren arabera, zibersegurtasuna honako hau da: «Ziberingurunean erakundearen aktiboak eta erabiltzaileak babesteko erabil daitezkeen tresnen, politiken, segurtasun-kontzeptuen, segurtasun-babesen, jarraibideen, arriskuak kudeatzeko metodoen, ekintzen, prestakuntzaren, jardunbide egokien, aseguruaren eta teknologien multzoa».

Erakundearen aktiboak eta erabiltzaileak honako hauek dira: gailu informatiko konektatuak, erabiltzaileak, zerbitzuak/aplikazioak, komunikazio-sistemak, multimedia komunikazioak eta ziberingurunean transmititu eta/edo gordetako informazio guztia.

Zibersegurtasunari esker, erakundearen aktiboen eta erabiltzaileen segurtasun-propietateak lortzea eta ziberinguruneko segurtasun-arriskuen aurka eustea bermatzen da, kontuan hartuta segurtasun-propietateek honako hauetako bat edo gehiago barne hartzen dituztela: erabilgarritasuna; osotasuna –horren barruan benetakotasuna eta nahitaezko onarpena sar daitezke–; eta konfidentzialtasuna.

Bestetik, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak onartutako Europar Batasuneko informazio-sare eta -sistemen segurtasun-maila handia eta bateratua bermatzeko neurriei buruzko uztailaren 6ko 2016/1148 (EB) Zuzentarauaren (NIS Zuzentaraua) 4.2 artikuluan, honela definitzen da «informazio-sare eta -sistemen segurtasuna»: «Informazio-sare eta -sistemek gordetako, transmititutako edo tratatutako datuen, edo sare eta sistema horiek eskaini eta eskuragarri jarritako zerbitzuen, erabilgarritasuna, benetakotasuna, osotasuna edo konfidentzialtasuna arriskuan jartzen duen ekintza

orori, fidagarritasun-maila jakin batekin, aurre egiteko duten ahalmena». Helburu horrekin, Zuzentarauaren beraren arabera, estatu kideek «informazio-sareei eta -sistemei eragiten dieten gorabeherak eta arriskuak prebenitu, hauteman, erantzun eta arintzeko» neurriak har ditzakete (34. kontuan hartuzkoa).

Zibersegurtasunaren kontzeptua osatzen duten hainbat alderdiren edukia kontuan hartuta, esan daiteke hainbat adiera izan ditzakeela eta hainbat jarduera barne har ditzakeela; izan ere, informazio-sareen eta -sistemen erabiltzaileak eta zibermehatxuen eraginpeko beste pertsona batzuk babesteko beharrezkoak diren jarduerak barne hartzen ditu. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak egunero erabiltzearen ondorioz, garapen ekonomikorako eta gizarte-harremanetarako funtsezko elementu bihurtu dira. Hala ere, egiaztatuta dago, halaber, sarearen segurtasun-arriskuek arlo askori eragiten dietela, informazioaren eskuragarritasunari, osotasunari eta konfidentzialtasunari eragiten diotelako.

**Comentado [A11]:** Jatorrizkoa iluna da. Begiratu itzulpena zuzena den.

Horregatik, ulertu behar da zibersegurtasuna, sareko segurtasunaren sinonimo gisa, segurtasun publikoaren eta telekomunikazioen barruko jarduera bat dela. Azpiegitura informatikoak eta horiek biltzen duten informazio digitala babesteko mekanismoen multzo bat dela ulertuta, erraz ondoriozta daitekeenez, informazioaren teknologien segurtasunaz arduratzen denez, babes-osagai bat duela, zeina herritarrek, enpresek eta administrazio publikoek erabiltzen dituzten informazio-sare eta -sistemen babesaren eremu zehatzean proiektatzen den berariaz.

Konstituzioan hiru kontzeptu bereizten dira: herritarren segurtasuna (104.1 art.), segurtasun publikoa (129.1 29 art.) eta ordena publikoa (16.1 eta 21.2).

172/2020 KAEk (3. OJ) hiru kontzeptu horiek bereizten ditu, identifikatzeko modukoak izan daitezen eta, ondorioz, herritarren segurtasuna, segurtasun publikoa eta ordena publikoa eskumen-eskemaren barruan bereizi ahal izan daitezen:

*«Herritarren segurtasuna, eskubide eta askatasunak baliatzea posible izango den elkarbizitza-esparru bat ziurtatzeko jarduera gisa –horiek osotasunean gauzatzea eragozten duten indarkeria eta oztupoak deuseztatuta– (Herritarren Segurtasuna Babesteari buruzko Lege Organikoaren atarikoak), segurtasun publikoaren kontzeptu zabalagoaren alderdi bat da; garrantzi handiko alderdi bat da eta profil propioak ditu, baina ez ditu biltzen segurtasun publikoaren esparru materiala definitzen duten alderdi guztiak. Eta, itxuraz, hala aitortzen du legegileak berak, hemen eztabaidagai dugun Lege Organikoaren aplikazio-eremutik kanpo uzten baititu segurtasun publikoaren parte diren alderdi batzuk (aireko, itsasoko, trenbideko, bideko edo garraioetako segurtasuna, betiere defentsa nazionalari eta alarma-, salbuespen- eta setio-egoeren arauketari buruzko xedapenak babesturik geratuz, 2.3 art.)».*

Bestalde, ekainaren 8ko 33/1982 KAEk, 3. oinarri juridikoan adierazi zuenez, «ordena publikoa» kontzeptuaren barruan segurtasunaren kontzeptuan sartzen ez diren alderdi

batzuk sar daitezke –esaterako, osasungarritasuna–, segurtasunaren ardatza pertsonak eta ondasunak babestea baita (segurtasuna zentzu hertsian) eta lasaitasunari edo herritarren ordenari eustea, biak ala biak xede banaezinak eta elkarren mendekoak.

Carmen Martín Fernández egileak, “El régimen sancionador de la Ley de Seguridad Ciudadana y su adecuación a la Constitución: a propósito de las SSTC 172/2020, de 19 de noviembre, y 13/2021, de 28 de enero” artikuluan (Herritarren Segurtasunari buruzko Legearen zehapen-araubidea eta Konstituziora nola egokitzen den: azaroaren 19ko 172/2020 KAEn eta urtarrilaren 28ko 13/2021 KAEn harira), *Revista de Administración Pública* aldizkarian argitaratua (216. zk., 2021eko iraila-abendua, 232. or.), honako hiru kontzeptu hauek laburbiltzen ditu:

- a) Herritarren segurtasuna: segurtasun indar eta kidegoek pertsonak eta ondasunak giza portaeretatik babesteko egiten duten jarduera. Segurtasunaren zentzu hertsia islatzen du, gure eskubide eta askatasunak gauzatzeko aukera ematen digun pertsonen beldur sentimendurik eza, herritarren lasaitasuna.
- b) Segurtasun publikoa: kontzeptu honek aurrekoa barne hartu eta haratago doa, aurreikusi ezin diren arrisku natural saihestezinen aurreko babes ere barne hartzen baitu; hau da, babes zibila. Beraz, lasaitasuna eta beldurrik eza ez ezik, zorigaitzen edo hondamendien aurrean erantzutea eta babes publikoa ematea ere biltzen du.
- c) Ordena publikoa: kontzeptu hori, sailkatzen zaila izan arren, desordenaren aurkako egoera mental eta kanpoko batekin identifikatzen da eta segurtasun publikotik harago doazen bizitza kolektiborako ezinbesteko baldintzekin lotuta dago; izan ere, eskuarki onartzen denaren arabera, gutxieneko osasungarritasun-baldintzak ere barne hartzen ditu.

EABJren 154/2011 Irizpenak, 50.-54. epigrafeetan, Euskadiko Segurtasun Publikoaren Sistema Antolatzeko Lege Aurreproiektuari buruzkoak (gaur egungo 15/2012 Legea, ekainaren 28koa), segurtasun publikoaren kontzeptua honela mugatzen du:

50. Hala ere, Konstituzio Auzitegiak lagundu du, interpretatzeko-zeregina betez, kontzeptua mugatzen eta, ondorioz, autonomia-erkidegoen eta Estatuaren arteko eskumen-banaketa, nabarmenduz pertsonen eta ondasunen segurtasuna lortzeko edo horri eusteko araudi oro ezin dela segurtasun publikoaren arloan sartu; izan ere, horrela balitz, ordenamenduko ia arau guztiak segurtasun publikoko arauak izango lirateke (1985eko maiatzaren 6ko KAE).

51. Terminoaren doktrina-eraketaren aurrekariak aspaldiko bi epai dira, ekainaren 8ko 33/1982 KAE eta abenduaren 5eko 117/1984 KAE, baina benetako abiapuntua ekainaren 8ko 104/1989 KAE da, eta, besteak beste, irailaren 30eko 175/1999 KAEn eta abenduaren 13ko 235/2001 KAEn laburbiltzen da.

52. 154/2005 KAEn, ekainaren 9koan, segurtasun publikoaren arloko doktrinaren alderdi nagusiak biltzen ditu, eta honako hau baieztatzen du:

«Konstituzio-doktrina honetan jasotakoari jarraituz adierazi dugun bezala, “segurtasun publikoa” gaiak, pertsonak eta ondasunak babesteko eta herritarren lasaitasunari eta ordenari eusteko jarduera” gisa ulertuta, aipatutako ekainaren 8ko 33/1982 KAEn (1982 KBE, 33) 3. OJn aurreratu genuenaren arabera, “jarduera-multzo anitz eta dibertsifikatu bat barne hartzen du, izaera eta eduki ezberdinekoak, baina xede berekoak, hau da, ondasun juridiko gisa definitutakoa babestea”. Jarduera-multzo horren barruan kokatu behar dira, nagusiki kokatu ere, xede hori duten erakunde instrumentalen berariazko jarduerak, eta, bereziki, Segurtasun Kidego eta Indarrei dagozkienak, EKren 104. artikuluan aipatuak (1978 LBK, 2836) . Baina, garrantzitsuak izan arren, polizia-jarduera horiek, zentzu hertsian, edo polizia-zerbitzu horiek, ez dute agortzen segurtasun publikotzat hartu behar denaren eremu materiala, segurtasun publikoa botere publikoen eskumena –betearazlea soilik bada ere– mugatzen duen kontzeptu gisa ikusita. Segurtasun Kidego eta Indarrenak ez diren bestelako alderdi eta eginkizun batzuek, beste administrazio-organo eta -agintaritza batzuei esleituek... osatzen dute, zalantzarik gabe, haren eremu materiala» (104/1989 KAE, ekainaren 8koa [1989 KBE, 104], 3. OJ).

Horrek esan nahi du, bai, «polizia-jarduera arlo zabalagoa den segurtasun publikoaren zati bat dela” (175/1999 KAE [1999 KBE, 175], 7. O). Eta, ez, «ezin da esan herritarren segurtasunerako garrantzitsuak diren jardueri buruzko edozein araudi polizia-kidegoen edo kidekoen funtzioen eremuan sartu behar denik beti eta kasu guztietan; izan ere, begi-bistakoa da segurtasun publikoaren arloko berezko helburuei erantzun arren kidego horien jardueraren eremuan sartzen ez diren administrazio-jarduerak arautu daitezkeela» (235/2001 KAE, abenduaren 13koa [2001 KBE, 235], 8. O). Bestela esanda, “ezin da segurtasun publikoaren arloa Segurtasun Indar eta Kidegoen berezko jardunarekin erabat identifikatu, hau da, segurtasun publikoari buruzko araudia ez da mugatzen segurtasun-polizia deritzonaren jardun espezifikoak arautzera” (148/2000 KAE, ekainaren 1ekoa [2000 KBE, 148], 6. OJ)».

53. Jurisprudentziaren mugaketa horretan, Auzitegi Gorenak kontzeptua mugatu du beste gai batzuei dagokienez, adibidez: osasun publikoa (33/182 KAE), tokiko korporazioetan esku hartzea ordena publikoarekin lotutako arrazoiengatik (117/194 KAE), babes zibila (123/1984 KAE, 133/1990 KAE eta 31/2010 KAE), autonomia-erkidegoaren lurraldean dauden Estatuko saretik kanpoko errepideak (STC 59/1985), kirola, polizia eta ikuskizunak (148/2000 KAE eta 25/2004 KAE), bideozaintza (31/2010 KAE) eta segurtasun pribatua (154/2005 KAE eta 31/2010 KAE).

54. Azken batean, segurtasun publikoaren arlo zabalaren barruan, kontuan hartu behar dira Espainiako Konstituzioaren eta Estatutuaren arabera Autonomia Erkidegoa lehen mailako

**Orrialdea: 14/29**

Comentado [AI2]: ??????

titular duten beste eskumen-titulu batzuk, zeintzuk bete beharko dituen, harekin zerikusia izan arren. ....

Mugaketa kontzeptual hori abenduaren 20ko 142/2018 KAEK berretsi du, 6.a) OJn:

Gogoan hartu behar da “segurtasun publikoa” gaiak erreferentzia egiten diola “nagusiki polizia-jardueren bidez, zentzu hertsian, eta haiei atxikiak edo haien osagarriak diren eginkizun ez-polizialen bidez, gauzatzen den babesa”-ri (ekainaren 8ko 104/1989 KAE, 6. OJ, eta irailaren 30eko 175/1999 KAE, 5. OJ). Baina, era berean, «segurtasun-poliziaren esku-hartzeen erregulaziotik haratago joan daiteke», hau da, segurtasun-indar eta -kidegoen berezko funtzioetatik haratago (86/2014 KAE, maiatzaren 29koa, 4. OJ), «polizia-jarduera segurtasun publikoaren arlo zabalagoaren zati bat baita» (175/1999 KAE, 7. OJ). Segurtasun publikoa, printzipioz, Estatuaren eskumen eskusiboa da, EKren 149.1.29 artikulua arabera, baina konstituzio-manu horrek berak agerian uzten du salbuespenak ezartzen direla («kalterik egin gabe»), eta horiek, nolabait, EKren 149. artikulua hasierako paragrafoan aldarrikatutako Estatuaren eskumen-esklusibotasuna modulatzeko dute.

Hala ere, segurtasun publikoa ez da polizia-jarduerara mugatzen (86/2014 KAE, 4. OJ); beraz, segurtasun publikoaren arloa polizia-zerbitzuen berezko eremuarekin erabat ez identifikatzeak ondorioak ditu arlo horretako eskumenak zedarritzeari dagokionez; hala, eskumenak bereganatuta dituzten autonomia-erkidegoei dagokie beren polizia-zerbitzuak antolatzea eta estatuari ez dagozkion polizia-funtzio edo -zerbitzuak gauzatzea, bai eta poliziarekin hertsiki lotuta ez dauden eginkizun edo ahalmen batzuk atxikitzea edo osatzea ere (104/1989 KAE, 6. OJ eta 175/1999 KAE, 5. OJ).

Era berean, aipatu behar dugu EABJk «babes zibila»ren arloko eskumena analizatu duela, Euskadiko Segurtasun Publikoaren Sistema Antolatzeako Lege Aurreproiektua aztertzerakoan (154/2011 Irizpena), bai eta Larrialdiak Kudeatzeko Legea Aldatzeko Aurreproiektua (213/2011 Irizpena) aztertzerakoan ere; azken horren kasuan, 59/2017 Irizpenean, Larrialdiak Kudeatzeko Legearen Testu Bategina onartzen duen Legegintzako Dekretuaren proiektuari buruzkoan (gaur egun 1/2017 Legegintzako Dekretua, apirilaren 27koa) analisi horri buruzko ohar batzuk egitea egokitzat jo zuen eta 21. epigrafetik 30.era bitartean jasota daude:

21. Horretarako, nahikoa da aipatzea, Konstituzio Auzitegiaren apirilaren 28ko 87/2016 Epaian (KAE) gogorarazten den bezala, 123/1984 KAEtik aurrera, «babes zibila»ren arloa, Konstituzioan eskumenak mugatzeko irizpideen artean aipatu gabea, EK-ko 149.1.29 artikuluko segurtasun publikoaren kontzeptuarekin lotuzat jo da.

22. Aipatutako epaiak babes zibilaren kontzeptua gogorarazten du, honela definitua: «Administrazio publikoek, larrialdi-egoera bati aurre egin edo erantzuteko beharrezkoak

diren bitartekoak eta zerbitzuak mobilizatzean, eta, pertsonak eta ondasunak babesteko, kalteak murrizteko eta konpontzeko eta normaltasun-egoerara itzultzeko askotariko zerbitzuak koordinatzean, izan behar duten jokabidea arautzeko arauen eta protokoloen multzoa» (155/2013 KAE, irailaren 10ekoa).

23. Bere aldetik, azaroaren 3ko 184/2016 KAEk gogorarazten du auzitegiak zenbait epai eman dituela eskumen-titulu horri buruz, eta horren arabera: «bai konstituzio- eta estatutu-aurreikuspenetatik bai konstituzio-doktrinatik... eratorzen da babes zibilaren arloan, haren izaeragatik, eta haren helburua larrialdi-egoeran pertsonak eta ondasunak babestean oinarritzen denez, lurralde-mailako erakundeen eskumenen arteko konkurrentzia gertatzen dela... horren ondorioz, konstituzio-doktrinaren baldintzetan, segurtasun-arloko estatuaren eskumenak eta babes zibilaren arloko autonomia-erkidegoen eskumenak bateratu behar dira (87/2016 KAE eta 155/2013 KAE)».
24. Era berean, aipatzen da Estatuak eta autonomia-erkidegoek esparru horretan dituzten eskumenen arteko harremana 133/1990 KAE n zedarrituta geratu zela. Bertan adierazten zenez, «babes zibilaren arloko eskumena larrialdi-egoeraren izaeraren eta mobilizatu beharreko baliabide eta zerbitzuen arabera izango da», beraz, «eskumen autonomiko horrek muga jakin batzuk ditu, hondamendiak edo larrialdiak interes nazional edo autonomiaz gaindiko bati eragin ahal izatearen ondorioz: Dela hainbat administrazio koordinatu beharra aurreikusuten delako, dela gertaeraren irismenagatik (hainbat autonomia-erkidegori eragitea) edo haren dimentsioagatik, zeintzuek eraginpeko administrazio publiko guztien zuzendaritza nazional bat izatea eta autonomiaz gaindiko baliabideak jartzea eska baitezakete»; beraz, azken batean, «autonomia-erkidegoek bereganatutako eskumenek, horrenbestez, Konstituzioak 149.1.29 artikuluan Estatuaren eskumenerako gordetzen duen segurtasun publikoaren politikan dute muga, segurtasun publiko horrek dimentsio nazionala duen heinean».
25. Aurrekoarekin lotuta, gogoan izan behar da Autonomia Estatuaren (EAEAE) 17.1 artikulua honako hau ezartzen duela: «...Euskal Herriko erakundeei egokituko zaie, Estatu honetan zehazten den eran, gizakien eta ondasunen babeserako Autonomia Erkidegoko poliziaren araubidea...». Eskumen-titulu horixe erabiltzen da gaia autonomia-erkidegoko eskumenen artean kokatzeko. Gainera, gure estatutuan babes zibileko jardun jakin batzuekin lot daitezkeen beste eskumen batzuk daude; adibidez: osasuna, mendiak, nekazaritza, errepideak edo ingurumena.
26. Era berean, gogoan izan behar da arlo honetan azaroaren 25eko 27/1983 Legeak (Autonomia Erkidego Osorako Erakundearen eta bertako Lurralde Historikoetako Foruzko Jardute-Erakundearen arteko harremanei buruzkoa edo LHL) 7.c).4 artikuluan, suteen kontrako gaiei dagokienez, lurralde historikoei ematen dien eskumen betearazlea, bai eta Larrialdiak Kudeatzeko apirilaren 3ko 1/1996 Legearen (LKL) 6. artikuluan ematen dizkien funtzioak ere.



27. Tokiko korporazioei emandako eskumenei dagokienez, aipatu behar da Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak gure lurraldearen udal-eskumenaren arloa berretsi duela. Horrela, 17.1 artikulua honako hau azpimarratzen du: «Lege honetan eta aplikatu beharreko legerian xedatutakoaren esparruan, udalerriek, besteak beste, babes zibila, emergentziak, eta suteen prebentzioa eta itzaltzea antolatzearen eta kudeatzearen esparru materialean erabili ahal izango dituzte eskumen propioak».
28. Estatuko arau-esparruan Babes zibileko sistema nazionalaren uztailaren 9ko 7/2015 Legea nabarmendu daiteke. Lege horrek ordura arte indarrean zegoen babes zibileko urtarrilaren 21eko 2/1985 Legea indargabetu zuen. Lege horretan bertan, 1. artikuluan, honako hau adierazten da: «Babes zibila, segurtasun publikoaren politikarako tresna den aldetik, pertsonak eta ondasunak babesten dituen zerbitzu publiko bat da, naturaren edo giza ekintza halabeharrezko zein asmo txarrekoen ondoriozko larrialdi eta hondamendi mota guztiei behar bezalako erantzuna ematea bermatzen duena». Gainera, administrazio publiko guztien –beren eskumenen esparruan– babes zibileko jardura integratzen duen sistema gisa definitzen du, erantzun koordinatua eta eraginkorra bermatzera zuzendua.
29. Bestetik, legearen 13. artikulua babes zibilaren oinarriko araua ezarri du funtsezko tresna gisa. Horrek honako hauek izango ditu: «larrialdi-arriskuak identifikatzeko eta arriskuak osotasunean kudeatzeko jardueretarako oinarriko jarraibideak eta babes zibileko planak prestatzeko eta organo eskudunek plan horiek modu eraginkorrean ezartzeko jardueren gutxieneko edukia eta irizpide orokorrak».
30. Azkenik, zeharkakoago eragina duen segurtasun nazionalako irailaren 28ko 36/2015 Legea aipatu behar da. 11. artikuluan herri-administrazioek interes bereziko arloetan dituzten betebeharrak ezartzen ditu. Azpiegitura kritikoak babesteko neurriak ezartzen dituen apirilaren 28ko 8/2011 Legea ere aipa daiteke. Horren edukia autonomia-erkidegoko araudiak babes zibilaren arloan ezartzen duenari kalterik egiten ez diola ulertzen da, autonomia-estatutuetan xedatutakoaren arabera lurralde bakoitzari dagozkion eskumenei jarraituz.

Euskadik segurtasunaren arloan duen eskumena foru- eta udal-mailetako eskumenekin koordinatu behar da nahitaez. Euskadiko Segurtasun Publikoaren Sistema Antolatzeko ekainaren 28ko 15/2012 Legeak aurreikusten du erakundeen arteko koordinaziorako eta elkarlanerako organismo formalak egotea eta administrazioek segurtasun publikoaren arloan garatu behar dituzten politika publikoak era mailakatu eta koherente batean planifikatzea. Koordinazio hori larrialdien arloko eskumenei edo babes zibileko planei dagokienez ere aurreikusten da Larrialdiak Kudeatzeko Legearen Testu Bategina Onartzeko apirilaren 27ko 1/2017 Legegintzako Dekretuan.

Nolanahi ere, segurtasunaren arloari dagokionez, kontuan hartu behar da abenduaren 20ko 142/2018 KAEk telekomunikazioen, defentsaren eta segurtasun publikoaren arloan egiten duen eskumen-azterketa, Gobernuko presidentek Kataluniako Zibersegurtasun

Agentziaren uztailaren 25eko 15/2017 Legearen aurka jarritako konstituzio-kontrakotasuneko errekurtoa ebazte aldera.

15/2017 Legeak Kataluniako Zibersegurtasun Agentzia sortu zuen, berezko nortasun juridikoa duen eta zuzenbide pribatuaren mende dagoen zuzenbide publikoko erakunde gisa, zeinari dagokion Kataluniako lurraldea babesteko beharrezkoa den zibersegurtasuneko zerbitzu publikoa garatzea eta gidatzea, Kataluniari eta haren erakundeei eragiten dieten gertakari orokorrak kudeatzea eta horien berri izan dezaketen taldeen ahaleginak koordinatzea. Lege horrek Agentziaren izaera juridikoa eta aplikatzen zaion araubidea ezartzen ditu, eta, besteak beste, honako hauek definitzen ditu: xedea eta eginkizunak, egitura organikoa, ekonomia- eta finantza-araubidea, kontrataziokoa, langileena, kontrolekoa eta Agentzia atxikita duen sailarekiko harremanak.

Impugnazioaren arrazoia, nagusiki, eskumenekin lotuta dago; izan ere, errekurtsogilearen ustez, 15/2017 Legeak urratu egingo luke EKren 149.1.29 artikulua araberako Estatuak segurtasun publikoaren arloan duen eskumen eksklusiboa, zeinaren barruan sartzen baita zibersegurtasuna, Estatuak defentsaren arloan dituen eskumenekin (EKren 149.1.4 artikulua) eta telekomunikazioen arloan dituenekin (149.1.21 artikulua) lotuta.

Azterketa horretan ondorioztatzen denez, zibersegurtasunaren kontzeptua segurtasun publikoaren kontzeptuaren barruan sartzen da, eta hortik ondoriozta daiteke EAEk aukera duela bere lurralde-eremuan Zibersegurtasun Agentzia sortzeko, Agentziaren eginkizunak (aurreproiektuaren 2.1 artikuluan aipatzen dira) bere eskumeneko informazio-sistemak eta sare elektronikoak babesteko jarduerarekin lotutakoak bakarrik izan behar dutela ulertuta, eta hori guztia, halaber, maiatzaren 12ko 3/2022 Legean mugatutako euskal sektore publikoarekin lotuta; horrez gain, informazio-sare eta -sistema propioak, partikularrenak eta administrazio autonomikoarekin bitarteko elektronikoen bidez harremanetan dauden beste administrazio batzuenak babesteko beharrezkin lotutakoak.

#### **b) Arauaren maila**

Euskal Sektore Publikoaren Legearen 44.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, zuzenbide pribatuko erakunde publikoak lege bidez eratuko dira.

Aurreproiektu honen helburua, lehenengo artikuluan adierazten den bezala, Euskadiko Zibersegurtasun Agentzia sortzea da, Eusko Jaurlaritzaren zuzenbide pribatuko erakunde publiko gisa, beraz, ezingo du legeena ez beste arau-mailarik izan.

#### **c) Aurreproiektuaren edukia eta legearekiko eta zuzenbidearekiko egokitasuna.**

Lege-aurreproiektuak azalpen-zati bat eta xedapen-zati bat ditu, hamahiru artikulua hiru kapitulutan banatuta, xedapen gehigarri bat, xedapen iragankor bat eta hiru azken xedapen.

Aipatu behar da aurreproiektu honek Kataluniako Zibersegurtasun Agentziari buruzko uztailaren 25eko 15/2017 Legearen arauketa-egiturari jarraitzen diola, ia mimetikoki, zeinaren aurka 5284-2017 konstituzio-kontrakotasuneko errekurtsua jarri zuen Gobernuako presidentek, lehen aipatu dugun bezala, eta, ondoren, abenduaren 20ko 142/2018 KAE etorri zen.

Euskadiko Zibersegurtasun Agentzia Sortzeko Lege-aurreproiektuaren edukia honako hau da:

#### **Zioen adierazpena**

##### **I. kapitulua. Xedapen orokorrak**

1. artikulua. Sortzea, izaera eta araubide juridikoa.
2. artikulua. Xedea eta eginkizunak.

##### **II. kapitulua. Egitura organikoa**

3. artikulua. Gobernu-organoak.
4. artikulua. Administrazio Kontseilua.
5. artikulua. Administrazio Kontseiluaren eginkizunak.
6. artikulua. Zuzendaritza Nagusia.
7. artikulua. Aholku Kontseilua.
8. artikulua. Gobernu-organoen ebazpenen aurkako errekurtsuak.
9. artikulua. Estatutuak.

##### **III. kapitulua. Langileen araubidea, ekonomia, finantza, ondarea eta kontratazioaren arloko araubidea**

10. artikulua. Agentziako langileak.
11. artikulua. Ekonomia, finantza eta ondarearen arloko araubidea.
12. artikulua. Kontratazio-araubidea.
13. artikulua. Suntsitzea eta desegitea.

**XEDAPEN GEHIGARRIA.** Aktibo materialak eta langileak Agentziari lagatzea eta kontratu eta hitzarmenetan subrogatzea.

**XEDAPEN IRAGANKORRA.** Zibersegurtasunerako Euskal Zentroaren eginkizunak betetzea Agentzia eratu arte.

**AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA.** Agentzia eratzea.

**AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA.** Baimenak.

**AZKEN XEDAPENETAKO HIRUGARRENA.** Indarrean jartzea.

## **1. ZIOEN ADIERAZPENA**

Aurreproiektuaren eskumen-azterketa egitean, gure ustez zer eskumen-titulutan oinarritzen den aipatu dugu. Gai horri dagokionez, esan dugu aurreproiektuaren azalpen-zatian EAEAREN 10.25 eta 10.30 artikuluetan ezarritakoaren arabera EAEk eskusiboki bere gain hartzen dituen eskumenei egiten zaien aipamenak ez duela zerikusirik aurreproiektuaren 2. artikuluan Euskadiko Zibersegurtasun Agentziaren xedeaz eta funtzioez adierazitakoarekin.

## **2. LEHENENGO KAPITULUA: XEDAPEN OROKORRAK**

Hura osatzen duten bi artikuluetan, aurreproiektuaren I. kapituluak Euskadiko Zibersegurtasun Agentzia sortuko dela jasotzen du eta haren aplikazio-eremua, xedea eta eskumenak definitzen ditu.

Lehenengo artikuluan, Euskadiko Zibersegurtasun Agentziaren sorrera jasotzen da eta haren izaera eta araubide juridikoa finkatzen dira.

Euskal Sektore Publikoaren Legearen 44.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, zuzenbide pribatuko entitate publiko bat sortzeko legeak eduki hau bildu beharko du: pertsonifikazioa, izaera juridikoa eta Administrazio orokorreko zein saili atxikitzen zaion; izena eta egoitza; zer xede edo interes orokorrerako sortzen den, eta bere eginkizun eta ahalak; bere gobernu-organoak; egitura organiko eta administratiboaren oinarriak; zer araubide juridiko zehatz aplikatu behar zaion; zer langile eta ondare atxikitzen zaizkion entitateari, eta zer baliabide ekonomiko dituen; eta, entitatea azkentzeko eta likidatzeko prozedura. Horiek guztiak aurreproiektuan jasotako elementuak dira.

Segurtasuneko sailburuordeak espedienteari erantsitako memoria ekonomikoaren V. atalean, egitura organikoa eta langileen egitura taxutzen dira. Zuzendaritza Nagusiaren mende, Administrazio eta Zerbitzuen Alorra izatea aurreikusten da, Aholkularitza Juridikoaren Arloko Burutzak eta Idazkaritzak osatua.

Aurreproiektuaren 8. artikuluan ezarritakoaren arabera, Agentziaren estatutuek, besteak beste, haren barne-egitura organikoa eta funtzionamendu-araubidea zehaztu eta arautu behar dituzte. Gure ustez, komenigarria litzateke 1. artikuluan honetan 5. paragrafo berri bat sartzea, Euskadiko Zibersegurtasun Agentzia epaiketetan ordezkatzeko eta defendatzeko nori dagokion berariaz aipatzeko. Salbu eta, jakina, proposatutako eginkizun hori Agentziaren estatutuetan berariaz esleitzen bazaio.

Aipamen hori berariaz araututa dago Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 10.4 artikuluan, eta berariaz jaso da sail hau izapidetzen ari den

**Orrialdea: 20/29**

Datuak Babesteari eta Datuak Babesteko Euskal Agintaritzari buruzko Legearen aurreproiektuaren 3. Artikuluan –EABJren irizpena jasotzeke dago–.

Honako testu hau proposatzen da 1.5 artikulurako:

5.- Auzibidean jardun beharra badago, Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoaren ardura izango da Euskadiko Zibersegurtasun Agentzia ordezkatzea eta defendatzea, bere arauetan xedaturik dagoenaren arabera.

Bigarren artikuluan, arauaren xedea (txosten honen IV. apartatua aipatua) eta eginkizunak mugatzen ditu; azken horietako gehienak Kataluniako Zibersegurtasun Agentziari buruzko uztailaren 25eko 15/2017 Legearen 2. artikuluan jasotakoetatik datoz, zeintzuk haren aurka konstituzio-kontrakotasuneko errekurtsioa jarri ondoren, abenduaren 20ko 142/2018 KAEk aztertu zituen.

Xedeari dagokionez, 2.1 artikulua euskal sektore publikoari buruz ari denean erabiltzen duen terminologia zehaztu behar dugu. Terminologia horren kontzeptuzko mugaketa, euskal administrazio publikoei dagokienez, Euskal Sektore Publikoaren maiatzaren 12ko 3/2022 Legearen 4.1 artikuluan dago ezarrita. Honako hau da horren transkripzioa:

4. artikulua. – Euskal sektore publikoaren aplikazioa, aintzatespena eta partaide izatea.

1.– Lege honetan, euskal sektore publikoa izenez ezagutzen den multzoa aintzatesten da, eta euskal sektore publikotzat jotzen da euskal administrazio publiko guztietako sektore publikoen multzoa. Honako hauek sartzen dira multzo horretan: Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorra, lurralde historikoetako foru-administrazioak eta toki-administrazioak, baita haien guztien administrazio instituzionala eta haien mende eta atxikita dauden gainerako ente instrumentalak ere.

Hau da, 4.1 artikulua horretan ezarritakoaren arabera, nahikoa litzateke euskal sektore publikoa osatzen duen eremua aipatzea [aurreproiektuaren 2.2 d) artikuluan egiten den zentzuan, adibidez] bertan bildutako administrazio publiko guztiez aritzeko; izan ere, 4.1 artikulua berak ulertzen du euskal administrazio publiko guztietako sektore publikoek osatzen dutela, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorra, lurralde historikoetako foru-administrazioak eta toki-administrazioak barne, horiek guztiak haien guztien administrazio instituzionala eta haien mende eta atxikita dauden gainerako ente instrumentalak barne.

Ilido beretik, aurreproiektuaren 2.2 artikuluaren m), n) eta o) letretan erabilitako terminologia zehaztu behar da.

2.2 c) artikulua Agentziari esleitzen dion eginkizunari dagokionez, *Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak zibersegurtasunaren eta informazioaren eta komunikazioaren teknologien gobernantzaaren inguruan izapidetutako arau-xedapenak egiteko prozeduretan nahitaezko txostenak egitea*, azken horiei dagokienez, kontuan

hartu behar dira egiturari buruzko dekretuek hainbat organori ematen dizkieten eskumenak. Adibidez, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailari edo Segurtasun Sailari.

- Alde batetik, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 8/2021 Dekretuaren 20.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko Administrazio eta Zerbitzu Orokorretako Sailburuordetzak betetzen ditu eskumen horiek bere sailaren barruan.
- Bestetik, Segurtasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 6/2021 Dekretuaren 13. artikulua Komunikazio eta Sistema Informatikoak Kudeatzeko Zuzendaritzari arlo horretako eskumen zabalak esleitzen dizkio segurtasunaren arloan.

2.2 i) artikuluaren azken zatia dagokionez, ...*eginkizun publikoak betetzeko eskumena duen edozein agintariri laguntzeko*, gure iritziz ezabatu egin behar da, artikulua horretako l) letran berariaz jasota baitago.

Azkenik, aurreproiektuaren 2.3 artikulua honako hau ezartzen du: *Bere xedea betetzeko, Agentziak bere eginkizunak beteko ditu enpresa-sareari dagokionez, ekonomia sustapeneko eskumena duen Eusko Jaurlaritzako organismoarekin koordinatuta beteko ditu bere eginkizunak.*

Gure ustez, zuzenagoa litzateke organismoari buruzko aipamen hori (gaur egun, SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentzia zuzenbide pribatuko erakunde publikoa) sustapen ekonomikoaren arloan eskumena duen sailari egitea, hau da, gaur egun Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailari.

### **3. II. KAPITULUA: EGITURA ORGANIKOA**

II. kapituluak Agentziaren egitura organikoa eta organoen funtzioak definitzen ditu 3. artikulutik 9.era bitartekoetan.

Gobernu-organismoak Administrazio Kontseilua eta Zuzendaritza Nagusia dira, eta Aholku Kontseilua izango dute aholku emateko. Era berean, horien ebazpenen aurkako errekurtsoen araubidea finkatzen da, eta, bai Agentziaren eginkizunak bai funtzionamendu-araubidea geroago zehaztuko direla.

3. artikuluan, gobernu-organismoari buruzkoan, haren azken zatia osatu behar da; hala, Zuzendaritza aipatu ordez zuzenagoa da Zuzendaritza Nagusia aipatzea –geroago arautzen da, aurreproiektuaren 6. artikuluan–.

Gauza bera esan behar da 12.2 artikuluan egiten den aipamenari buruz: *Zuzendaritza da Agentziaren kontratazio-organoa*; zuzenagoa litzateke Zuzendaritza Nagusia aipatzea.

4 a) artikuluan, Administrazio Kontseilua Agentziaren kide anitzeko organo gorena dela adierazten da, eta lehendakari kargua Segurtasuneko sailburuari dagokiola.

Ez da aipatzen erakundearen ordezkari gorena lehendakaria edo zuzendari nagusia izango den. Ondoriozta daiteke ordezkaritza hori azken horri dagokiola, aurreproiektuaren 6.3 d) artikulua aplikatuz, bidezko diren hitzarmenak, akordioak, protokoloak edo ekintzak formalizatzeko ahalmena esleitzen baitio, Agentziaren izenean (azken koma hori gehitu egin beharko litzateke apartatu hori hobeto ulertzeko). Hori horrela balitz, edozein zalantza saihesteko, komeniko litzateke ordezkaritza hori 6.3 artikulua apartatu autonomo batean zehaztea.

4 c) artikuluan, badirudi maila eta kargua hitzak nahastu direla:

*c) Hiru kide, segurtasunaren, gobernantza publikoaren eta ekonomia-garapenaren arloan eskumena duten sailtakoak. Sail horietako sailburu maila izango dute.*

Euskal Autonomia Erkidegoko goi-kargudunak dira Euskal Sektore Publikoaren maiatzaren 12ko 3/2022 Legearen 13.4 artikuluan berariaz jasota daudenak, eta, horien artean, sailetan sailburuorde-karguak betetzen dituztenak daude. 13.5 artikulua zehazten duenez, goi-kargudunek araubide juridiko espezifikoak izango dute. Beren zerbitzu-harremana izendapen-dekretuarekin batera hasiko dute eta harremana kargua utzi edo dimisioa ematean amaituko da; horiek dagokien dekretua argitaratzen den egunetik aurrera izango dituzte ondorioak.

Kontuan hartu behar da balitekeela behin-behineko langileek sailburuorde-maila izatea, baina horiek ez direla goi-kargudunak izango.

Horregatik, 4 c) artikuluan zer hitz erabili argitu behar da, maila edo kargua izan behar duen, eta guk azken horren alde egiten dugu.

Aurreproiektuaren 7.1 artikuluan, Agentziaren zuzendaritzak Aholku Kontseilua izango duela ezartzen da.

Zuzendaritza bakarrik aipatzea nahasgarria izan daiteke, ez baitago argi Zuzendaritza Nagusiari edo Agentziako gobernu-organoei buruz ari garen. Gure ustez, azken hori da interpretazio zuzena, Aholku Kontseiluari esleitzen zaizkion eginkizunak aintzat hartuz; horietako bat Agentziako gobernu-organoei aholkularitza ematea da, aurreproiektuaren 7.2 a) artikuluan jasoa.

Hori horrela balitz, 7.1 artikulua hasiera adierazitako moduan zuzendu beharko litzateke, hau da, orain jasotzen den «zuzendaritza» hitzaren ordez, «Agentziaren gobernu-organoak» jarri beharko litzateke.

**Comentado [A13]:** Aurreproiektuan, euskarazko testua beste modu batera idatzita dago. Beraz, ohar honek ez du balio.

7.1 artikuluari buruzko azterketa amaitzeko, gure ustez, bai segurtasun juridikoagatik, bai hobeto ulertzeko, aurreproiektuko 7.1 c) artikuluak BRTA Teknologia Zentroen Aliantzaren akronimoa zehaztu beharko luke, edo, bestela, euskarazko adiera soilik aipatu beharko luke, ingeleseko itzulpenak gauza bera adierazten baitu (Basque Research and Technology Alliance).

**Comentado [A14]:** kasu honetan, "euskarazko" jarri beharko litzateke, itzultzen ari garen testuan bezala "gaztelaniazko" jarri beharrean.

#### **4. III. KAPITULUA: LANGILEEN ARAUBIDEA, EKONOMIA, FINANTZA, ONDAREA ETA KONTRATAZIOAREN ARLOKO ARAUBIDEA**

Aurreproiektuaren III. kapituluari, Agentziako langileen araubidea eta ekonomia, finantza, ondare eta kontratazioaren arloetakoak ezartzen da, 10. artikulutik 13.era bitartean.

Gai horietan espezializatutako organoei eskatutako txostenek adierazten dutenari kalterik egin gabe, honako zehaztapen hauek egingo ditugu:

11.5 artikuluan honako hau ezartzen da: «Euskadiko Zibersegurtasun Agentziaren finantza-kontrola, Euskal Autonomia Erkidegoko Finantzen azaroaren 8ko 8/1996 Legean ezarritakoaren arabera egingo da».

Gure ustez, gaur egun indarrean dagoen 8/1996 Legeari buruzko aipamen horren ordez *Euskal Autonomia Erkidegoko finantzei buruzko araudian ezarritakoa izan beharko luke*. Etorkizunean aldatu edo arauetarako bidalketak egin behar ez izateko, beste lege bat onartzearen ondorioz lege hori indargabetzen bada.

Aurreproiektuaren 13. artikuluan adierazten denez, Agentzia suntsitzen edo desegiten bada, langileak *urtean urteko Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren Legean ezarritako baldintzetan* integratuko dira.

Azken zatia kentzea proposatzen dugu, urte urteko aipamenari dagokionez; izan ere, desegite-prozesuak luze irauten badu ere, langileak aplikatu beharreko aurrekontu legean edo, hala badagokio, legeetan ezarritakoaren arabera integratuko dira.

#### **5. XEDAPEN GEHIGARRIA, IRAGANKORRA ETA AZKEN XEDAPENAK.**

Xedapen gehigarriari, iragankorri eta azken xedapenei dagokienez, honako hau aipatu behar da:

Xedapen gehigarria:



Enpresa-ondorengotza kasu bat aurreikusten du, zehazki, SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentzia zuzenbide pribatuko erakunde publikoak –gaur egun Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailari atxikita dago, sail horren egiturari buruzko Dekretuaren 2C) artikuluari jarraituz–, Euskadiko Zibersegurtasun Agentziari bere aktibo materialak eta langileak lagatzea, bai eta Agentzia Zibersegurtasunerako Euskal Zentroak sinatutako kontratu eta hitzarmenetan subrogatzea ere.

Prozedura hori lehenago ere egin da Sail horretan, adibidez, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiak ordura arte bere gain hartutako eskubideak, ondarea, baliabideak, kontratuak, zorrak eta betebeharrak oinordetzan hartu zituen, Euskadiko Segurtasun Publikoaren Sistema Antolatuzeko ekainaren 28ko 15/2012 Legearen bigarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren bidez.

Aurreproiektuaren azalpen-zatiak honako hau ezartzen du:

Euskal Autonomia Erkidegoan zibersegurtasunaren esparruan diharduten organismoen artean, erreferentetzat jotzen da, gaur egun, Zibersegurtasun Euskal Zentroa (Basque Cybersecurity Centre edo BCSC). Zentroa Eusko Jaurlaritzak martxan jarri zuen, Euskadin zibersegurtasuna bultzatzeko zibersegurtasuna aplikatzearekin lotutako jarduera ekonomikoa dinamizatuz eta sektore hori sendotuz. 2017az geroztik, Zibersegurtasunerako Euskal Zentroak zibersegurtasunaren kultura arrakastaz sustatu eta garatu du euskal gizartean. Haren lanari esker, zibersegurtasunaren aplikazioarekin lotutako jarduera ekonomikoa dinamizatu ahal izan da, sektore profesionala indartu da eta Euskadi zibersegurtasunaren arloko intereseko eskualde gisa kokatu da nazioartean, batez ere industria-eremuan. Euskal Autonomia Erkidegoan zibersegurtasunari buruzko heldutasun- eta kontzientziazio-maila handitzeko ekimenak gidatzen eta laguntzen ditu Zentroak, zibersegurtasun-gertakariei aurrea hartzeko eta horiei erantzuna emateko esparruan bildutako proiektuen (CERT, Computer Emergency Response Team) eta zibersegurtasuneko euskal ekosistema sustatzera bideratutako ekimenen bitartez. Hori guztia, enpresa-sektorearekin lankidetzan eta inbertsioa eta talentua erakartzeko xedez.

Gaur egungo ingurumarian eta dauden joerak kontuan hartuta, zibersegurtasuna zeharkako gai gisa hartu eta dinamizatu behar da Euskal Autonomia Erkidegoko zenbait organismoen ekimenen esparruan; ekimenen euskarri izan behar du behar bezala gara daitezen, eta laguntza eman behar die herritarrei eta enpresa-sektoreari. Alabaina, Zibersegurtasunerako Euskal Zentroak, duen forma juridikoagatik, ezin ditu zibersegurtasunaren eginkizunak bete eta zerbitzu publikoa eman Euskal Autonomia Erkidegoan. Bada, testuinguru horretan sortu da Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoan ekimen komun bat garatzeko premia, dauden baliabideen koordinazioa artikulatu eta indartuko duena, eta zibersegurtasunaren inguruko heldutasun-maila eta erresilientzia areagotzeko balioko duena Euskal Autonomia Erkidego osoan. Horrela, bada, oso garrantzitsua da Euskadiko zibersegurtasunaren organismo integratzaile eta zeharkako bat bultzatzea, Internet eta teknologia berrien erabileraren ondoriozko mehatxuen aurrean gizarteari segurtasuna eta egonkortasuna emango diona, eta kanpoko eragileekiko harremanetarako puntu bakarra izango dena.

Arau-esparrua aipatzen dugunean (txosten honen III. atala), esan dugu Zibersegurtasunerako Euskal Zentroa Eusko Jaurlaritzako hainbat sailek eta teknologia-zentrok osatzen dutela. Zibersegurtasunaren arloan dituen eginkizunak SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziaren barruan gauzatzen dituen arren, zentroak berak ez du nortasun juridikorik.

SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentzia zuzenbide pribatuko erakunde publikoak Euskadiko Zibersegurtasun Agentziari jarduera horretara bideratutako aktibo materialak eta langileak lagatzeko arazo juridiko handirik egon behar ez lukeen arren, behar bezala instrumentatzea besterik ez –Euskadiko Ondareari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 6ko 2/2007 Legegintzako Dekretuan eta Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6/1989 Legean aurreikusitako prozeduren bidez–, ezin da gauza bera esan Agentzia Zibersegurtasunerako Euskal Zentroak sinatutako kontratu eta hitzarmenetan subrogatzeaz, azken erakunde horrek ez baita nortasun juridikorik.

**d) Izapideak**

Izapidetzeari dagokionez, aurreproiektuaren aurrekariak aipatzean horretaz aritu gara (txosten honen I. atala), eta horri gaineratu behar zaio lehen lehendakariorde eta Segurtasuneko sailbururen 2022ko abuztuaren 3ko Aginduan aurreikusitakoa – Euskadiko Zibersegurtasun Agentzia sortzeko lege-aurreproiektu bat egiteko, izapidetzeko eta Gobernu Kontseiluari aurkezteko prozedura has dadila agintzekoan–, zeinarekin erabat ados geundela adierazi genuen.

Hala ere, aurreko epigrafean lehenengo xedapen gehigarrian xedatutakoaren edukari buruz planteatutako arazoa kontuan hartuta, beharrezkotzat jotzen dugu, aurreikusitako izapide guztiez gain, Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzari txostena eskatzea, Ekonomia eta Ogasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 23ko 69/2021 Dekretuaren 17.a) artikulua esleitzen dizkion eskumenera arabera.

**e) Enpresan duen inpaktuari buruzko txostena**

Ekainaren 28ko 16/2012 Legeak, zeina Euskadiko Ekintzaileei eta Enpresa Txikiei Laguntzekoa baita, honako hau ezartzen du:

*«1. Euskal Autonomia Erkidegoak sustatutako edozein arauketa edo arau berri bideratu aurretik, Eusko Jaurlaritzak, bere zerbitzu juridikoen bidez, ebaluazio-txostena egingo du, enpresak sortzearen, abian jartzearen eta haien funtzionamenduaren gaineko eraginari buruz.*

*2. Txostena nahitaezkoa izango da izaera orokorreko xedapenak lantzeko prozeduran, eta, nolatan ere, lege-proiektuekin batera Legebiltzarrari igorri beharko zaio».*

Eragin hori Segurtasuneko sailburuordeak espedienteari erantsitako memoria ekonomikoan aztertu da, eta honako paragrafo hauek baino ez ditugu aipatuko:

Memoria ekonomikoaren II. atala:

Agentziaren jarduerak Euskadiko sektore publikoaren eremuko gaitasunak eta heldutasuna hobetzea ekarriko dute, estrategia komun bat bultzatzea eta

**Orrialdea: 26/29**

sustatzea ahalbidetuko duen gobernu-geruza bat lortuko baita. Gainera, zibergertakariei batera erantzuteko orduan lankidetzaz publiko-pribatua sustatzea ahalbidetuko du, eta hobera egingo du, horri esker, EAEko gizartearen erresilientzia.

Zibersegurtasunaren izaera dela eta, lortutako onurek ez dute zuzeneko onura ekonomikorik ekarriko (diru-sarrerak, alegia), baina arriskuak gutxitzea ekarriko dute, ordea; eta horrek onura argia eta kualitatiboki balioztagarria dakarkio gizarteari. Halaber, Euskadiko zibersegurtasun-industriari zuzenean eta gainerako industriei emandako laguntzak eragin positiboa izango du Euskadiko barne-produktu gordinaren esparruan, eta, aldi berean, lagungarria izango da haien onurak eta, ondorioz, errentagarritasuna eta lehiakortasuna babesteko.

#### Memoria ekonomikoaren VI. atala:

Zibersegurtasunaren esparruan, zaila da proiektatutako erakundeari esleitutako zuzkiduren eta baliabideen errendimendua adierazten duen ustiapen- eta kapital-koadroaren zenbatespen zehatza egitea; izan ere, jardueren emaitzek arrisku negatiboak murrizten dituzte, eta, beraz, lortu nahi den onura ez da itzulkin bat, Euskadiko administrazio publikoen eta gizartearen interesei kalte egiten dieten inpaktuak gutxitzea baizik.

Agentziaren balioak, berriz, onura kualitatibo eta ukiezinak eragingo ditu Euskadi Europa mailako Zibersegurtasun Industrialaren Polo bilakatzeko estrategiaren sustapenari dagokionez, eta Euskadiren BPGa handitzea ekarriko dute horiek. Horrez gain, euskal enpresek nazioartean lehiakorrak eta diferentzialak izateko behar-beharrezkoa duten eremu batean talentua sortzea bultzatuko da.

#### Memoria ekonomikoaren IX. atala:

Herritarrengan eta enpresa pribatuetan duen eragina.

Agentzia sortzeak eragin zuzena izango du Euskadiko herritarretan eta enpresetan.

Zibersegurtasun-arriskuen aurrean administrazio publiko erresilienteagoa, eta estrategia komuna duena, izateak ekarritako onurez gain, agentziak berak herritarrei eta enpresei zerbitzuak ematea du eginkizunen artean, zibersegurtasunaren eremuan heldutasuna eta babesa hobetu dezaten, hala banaka nola taldeka.

Enpresei dagokienez, gainera, agentziak talentua dinamizatuko du, zuzenean zein zeharka, eta horri esker, sektore pribatuak gaur egun baino potentzial handiagoa izan ahalko du, eta erreferentziatzko posizionamendua lortu nazioartean.

#### f) Legegintza-teknika

Testua bat dator Gobernu Kontseiluak onartutako jarraibideekin<sup>1</sup>, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko abenduaren 22ko 8/2003 Legearen hirugarren xedapen gehigarrian aipatzen direnekin –duela gutxi balioztatu dira, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 14.6 artikulua bidez–:

6.– Ahalik eta zabalkunde eta jarraipen handiena izan dezan, lege honen eranskinean argitaratuko dira Jaurlaritzaren Kontseiluaren 1993ko martxoaren 23ko Erabakiaren bidez onartutako xedapen orokorrak egiteko araugintza-teknikaren jarraibideak (apirilaren 6ko Agindua, 71. EHAA, apirilaren 19koa), hargatik eragotzi gabe horiek eguneratzea, Eusko Jaurlitzak egokitzat jotzen duenean onartzen dituen galdetegi edo formularioen bidez.

Hala ere, honako aldaketa hauek egitea proposatzen da:

#### Lege-aurreproiektuaren izendapena:

Aurreproiektuak Euskadiko Zibersegurtasun Agentzia hiru hizkuntzatan izendatzen du, EAEko bietan ez ezik, bai eta ingelesez ere: Euskadiko Zibersegurtasun Agentzia-Agencia Vasca de Ciberseguridad-Basque Cybersecurity Agency sortzeko Lege-aurreproiektua.

**Comentado [AI5]:** Aurreproiektuaren euskarazko testuan izenburua euskara hutsez agertzen da.

**Comentado [AI6]:** Aurreproiektuaren euskarazko testuan izenburua euskara hutsez agertzen da.

Izenburuari buruzko gidalerroen printzipio orokorre ezartzen dutenez («Lehenengo jokabidea. 1»), izenburuak xedapenaren edukia ahalik eta leialen islatu beharko du, eta, izendapenen arloan, ahalik eta zehaztasun handiena lortzea da printzipio gidaria. Izenburua egokia bada, ez du laburduririk beharko, ezta onartuko ere, eta, hala, desitxuratzea saihestuko du.

Printzipio horiek kontuan hartuta, izenburua laburtu egin beharko litzateke eta Agencia Vasca de Ciberseguridad-Euskadiko Zibersegurtasun Agentzia sortzeko Lege-aurreproiektua aipatu.

#### Testua kapitulutan zatitzea:

Lege-aurreproiektuak azalpen-zati bat eta xedapen-zati bat ditu, eta hamahiru artikulua, hiru kapitulutan egituratuta.

Egungo egiturak laugarren gidalerroan («Atalak bateratzea») adierazitakoa urratzen du, hogeit edo hogeita bost artikulua baino gehiago dituzten testuak soilik banatu baitaitezke kapitulutan, eta kasu honetan ez da halakorik gertatzen.

<sup>1</sup> Agindua, 1993ko apirilaren 6koa, Lehendakaritza, Lege Araubide eta Autonomi Garapenerako sailburuarena, Jaurlaritzaren Kontseiluak 1993ko martxoaren 23an egin zuen bilkuran onartu eta Lege Egitasmoak, Dekretuak, Aginduak eta Erabakiak lantzeko jokabideak onartzen direneko Akordioa argitara dadila agintzen duena (EHAA, 71. zk., 1993ko apirilaren 19koa).

Hala eta guztiz ere, egokitzen da dekretu hau hiru kapitulutan egituratzea, araututako gaiaren funtsezko alderdiak eta alderdi prozesalak heterogeneoak baitira.

Vitoria-Gasteiz, sinadura elektronikoaren eguna

**Jose Luis Aramendia**

**ARAU BIDE JURIDIKOAREN, ZERBITZUEN ETA HAUTESKUNDE PROZESUEN  
ZUZENDARITZA**